



KOSTUEN EGITURA

ELKARTUZen, edozein beste enpresan bezala, **kostuak** ditugu gure proiektua aurrera eramateko, eta gure proiektua **errentagarria** izan eta funtziona dadin ezinbestekoa da horiek ondo **identifikatu** eta **kudeatzea**. Horretarako, lehenik eta behin aurreikusten ditugun kostu guztiak **sailkatu** behar ditugu **baliabideak** era **egokian** erabiltzeko eta gure **finantzak** ondo **planifikatu** ahal izateko. Kostu horiek hainbat eratan sailkatuko ditugu: **finkoak** eta **aldakorrak** (jarduerarekin aldatzen diren ala ez kontuan hartuta) ,**zuzenekoak** eta **zeharkakoak** (proiektuarekin duten harremanaren arabera)... Gainera, **gizarte** eta **ingurumen** kostuak besteak beste ere kontuan hartuko ditugu, ELKARTUZen **eragin positiboa** bilatzen baitugu gizartean eta besteak ahalik eta gutxien kaltetzea dugu helburu.

Lehenik eta behin gure enpresaren **kostu zuzenak** aztertu eta aurkeztuko ditugu. Zuzeneko kostuak **ondasun** baten **ekoizpenarekin** edo **zerbitzu** bat **ematearekin** zuzenean **lotuta** dauden **gastuak** dira, produktu edo zerbitzu **horri era argi** eta **zuzenean egotz** ahal zaizkionak. Zerbitzua eskainiko ez balitz, kostu horiek ez lirateke egongo. Gure kasuan, zuzeneko kostuak izango lirateke, adibidez, **orientatzaileei saioengatik ordaintzea**, **gure app-an eskaintzeko baliabideen sorrera** edo **bestelako hezkuntza-edukiak ekoiztea** besteak beste, horiek gabe ezingo genukeelako orientazio-zerbitzua eman. Horien barruan, kostu finkoak eta kostu aldakorrak aurkituko ditugu.

Kostu finkoak **erabiltzaile-kopuruaren** eta enpresaren **jarduera-bolumenaren arabera** **ez** diren gastuak dira. **Egonkor** mantentzen dira, **nahiz eta** zerbitzuak **bezero gehiago** edo **gutxiago** izan. ELKARTUZek ikasle gutxi edo asko izan arren, kostu horiek ere **bere gain hartu** behar dira **zerbitzua existitu** dadin. **Kostu aldakorrak**, aldiz, **erabiltzaile kopuruaren** edo **zerbitzuaren erabileraren** arabera **aldatzen** diren gastuak dira. Jarduera handitzen denean handitzen dira, eta murrizten denean, berriz, murriztu egiten dira. Zenbat eta **ikasle gehiagok** erabili ELKARTUZ, orduan eta **handiagoak** izango dira **kostu horiek**.

Hona hemen aurreikusten ditugun zuzeneko-kostu nagusiak eta horien gutxigorabeherako balioa:

Zuzeneko kostu finkoak

KONTZEPTUA	URTEKO KOSTU ZENBATETSIA
Aplikazioaren garapena	6.000€
Bokaziozko testak garatzea	2.000€
Zerbitzuaren UI/UX diseinua	1.500€
Txosten pertsonalizatuak sortzea	1.000€
Zerbitzuaren berariazko tresnak	1.000€
TOTALA: 11.500€	

***UI**→ User Interface –Erabiltzaileen interfazea. Aplikazioa nolakoa den

***UX**→ User Experience – Erabiltzailearen esperientzia. Nola sentitzen den eta erabiltzeko erraztasuna



- Gure lehen kostu zuzena eta nabarienetako bat gure zerbitzuaren oinarria izango den **aplikazioaren sorrera** izango da. Honek funtsezko **funtzionalitateen diseinua** eta **garapena** barne hartzen ditu: erabiltzaileen erregistroa, ikasleen eta profesionalen profilak, edukietarako sarbidea, kontsulta-txata eta plataformaren egitura orokorra. Guzti hori garatzeko **profesionalen zerbitzuak** behar izango ditugu, baina **kostu finkoa** da, hasieran behin bakarrik egiten delako eta ez delako erabiltzaile kopuruaren arabera aldatzen. Hau **6.000€** inguru izango direla aurreikusi dugu
- Ondoren, gure **aplikaziorako materiala** sortzeko **2.000€** bideratuko ditugu, adibidez bokazio **testak** edo **inkestak** bezalako baliabideak sortzeko. Hauek guretzat **funtsezkoak** dira **arreta pertsonalizatua** ahalbidetzen dutelako.
- Horrez gain, gure aplikazioak **berrikuspen** eta **aktualizazio** jarraiak behar izango ditu, eta horretarako **1.500€** inguru bideratuko ditugu urtean. Hau oso **garrantzitsua** da berez gure **bezeroen esperientziaren oinarria** izango delako **app-a** eta hortaz beti ahalik eta hoberen egotea **premiatzkoa** dugu.
- Gainera, **txosten pertsonalizatuak** sortzearen kostua ere badago, **1.000 €** ingurukoa, gutxi gorabehera. **Testen emaitzak** eta **orientazio-saioak** bilduko dituen **txosten-sistema automatizatu** bat garatzean datza, ikasle bakoitzarentzat **dokumentu pertsonalizatuak** sortzeko. Nahiz eta gero txosten asko sortu, oinarritzko sistemaren diseinua hasierako kostu finkoa da.
- Azkenik, **zerbitzuaren berariazko tresnek** kostu bat suposatuko digute. Hauek gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko **plataformak** dira besteak beste (bideoak egiteko plataformak, datu pilaketa, ikasleen jarraipena...). Hauek **1000€** ingurukoak estimatzen ditugu.

Zuzeneko kostu aldakorrak

KONTZEPTUA	URTEKO KOSTU ZENBATETSIDA
Orientatzaileak eta profesional laguntzaileak	3.000€
Hezkuntza-eduki gehigarriak sortzea	2.000€
Euskarri teknikoa eta ezarpenak erabileraren arabera	1.000€
TOTALA: 6.000€	

- Gure lehen kostu aldakorra **orientatzaileen** eta lagunduko gaituzten **profesionalen soldatak** ordaintzea da. Gure bezeroei **lan-munduari benetako ikuspegia** eman nahi diegu, gure kolaboratzaileen **esperientzia pertsonaletan** oinarrituta. Horri esker, gure bezeroek errealitate desberdinak ezagutuko dituzte, horien arteak eta lanaren errealitatea hobeto ezagutzen. (Hemen gure ohiko langile guztien soldatak gehitu behar dira)
- Horrez gain **hezkuntza-eduki gehigarriak** (bideoak, baliabide digitalak, jarduera interaktiboak...) sortzen eta eguneratzen joan behar izango dala, eta horri **2000€** inguru izango direla deritzogu. Gure **aplikazioaren** eta **sare sozialen** bidez, informazio amaigabe **erabilgarria** eskaini nahi diegu erabiltzaileei. Material horiei esker, zerbitzu **osoagoa** eta **kalitate handiagokoa** eskaintzea posiblea da.



- Kostu zuzenekin bukatzeko, **1000€** bideratuko ditugu **euskarri teknikoa** eta **ezarpenetara**. Batez ere, gure zerbitzua daukagun **aplikazioan** oinarritzen da. Horrek behar bezala **funtziona** dezan eta guztiz **eguneratuta** eduki ahal izan dezagun, gure aurrekontuaren zati bat euskarri teknikoan inbertitu behar dugu, euskarri hori arduratzen delako lehen aipatutako guztiaz. Kostu **aldakorra** da, aplikazioa zenbat eta gehiago erabili, orduan eta euskarri, mantentze eta hobekuntza gehiago beharko ditugulako.

Behin kostu zuzenak ikusita, aurrera egin dezagun **zeharkako kostuetara**. Enpresa baten zeharkako kostuak produktu, zerbitzu edo proiektu jakin bati **zuzenean** eta zehatz esleitu **ezin** zaizkion baina erakundearen funtzionamendu orokorrerako beharrezkoak diren **gastuak** dira.

Zeharkako kostu finkoak

KONTZEPTUA	URTEKO KOSTU ZENBATETSIDA
Lege eta administrazio aholkularitza	1.000€
Hosting, domeinua eta zerbitzariak	500€
Software orokorreko lizentziak	1.000€
Lokalaren alokairua	1.200€
TOTALA: 3.700€	

- Zeharkako kostu finkoei dagokienez, **lege- eta administrazio-aholkularitza** da horietako bat, eta, gainera, nahiko garrantzitsua. Edozein enpresa bezala, **funtsezkoa** da guretzat **legea** ondo **betetzen** eta **izapideak** ondo **kudeatzen** lagunduko digun **laguntza profesionala** izatea.
- Beste kostu batzuei begira, hasteko, **domeinua** erosi behar dugu gure enpresarentzat, ELKARTUZ **erregistratu** ahal izateko eta aplikazio **irigarri** bat izateko. Bestalde, **hostingari** dagokionez, ordaindu ere egin behar dugu, aplikazioak behar bezala **funtziona** dezan. Hau da, aplikazioaren edo webgunearen fitxategi guztiak gordetzen diren Interneteko espazioa da, eta guk, aplikazio bat izatean, ordaindu egin behar dugu. Azkenik, kontuan izan behar ditugu zer **zerbitzarik** eragiten duten app-a **funtzionatzea** eta aplikazioa **24 orduz erabiltzeko** moduan egotea.
- Kontuan hartu beharreko beste kostu bat **software lizentziak** dira, orokorrean. Enpresa garen aldetik, ELKARTUZ garatzeko beharrezkoak diren **programak** edo **aplikazioak** erabili ahal izateko guk **erosi** behar ditugun **erabilera-baimenak** dira lizentzia horiek.
- Azkenik, gure **lokalaren alokairua** daukagu. Gure zerbitzua ez da soilik aplikazioari buruzkoa, baizik eta, lehen azaldu dugun bezala, **hitzaldiak** ere ematen ditugu, **bilerak** antolatzen ditugu... Hori guztia gauzatu ahal izateko, enpresa gisa lokal bat izatea **beharrezkoa** dela uste dugu, guztia modu **eroso** eta **azkarrean** kudeatu ahal izateko.

Zeharkako kostu aldakorrak

KONTZEPTUA	URTEKO KOSTU ZENBATETZIA
Marketina eta komunikazioa	2.000€
Administrazio-gastu aldakorrak	500€
Ezusteokoetarako funtsa	1.500€
Hitzaldiak emateko espazioen/lokalen alokairuak	350€ (100€-500€)
TOTALA: 4.350€	

- Bukatzeko, zeharkako kostu aldakorretan lehenik eta behin **marketina** eta **komunikazioa** dugu, edozein enpresatan ezinbestekoak. Hau da, enpresak gure aurrekontuan inbertituko duen zatia ekintza horietan guztietan, ELKARTUZek bere **burua ezagutzera** eman dezan, **erabiltzaile berriak** erakar ditzagun eta gure bezeroak jakinaren gainean eduki ditzagun. Gure zerbitzua aurrera eramateko **funtssezko** alderdia dela uste dugu eta horregatik uste dugu 2.000€ inguru inbertitu behar ditugula honetan.
- Kontuan hartu beharreko beste kostu bat **gastu administratibo aldakorrak** dira. Hau da, behar dugun **bulego-material gehigarri** hori guztia (koadernoak, liburuxkak, inprimaketak), mezularitza-kostuak edo erabiltzaileei dokumentuak bidaltzea eta administrazioko langile gehigarriei ordainketa txikiak egitea, aldatu egin daitezkeela erabiltzaileen edo saioen kopuruaren arabera ere kontuan hartu behar ditugu.
- **Ezusteokoetarako funtsa** beste kostu bat da, baina oraingoan gu geu gehitu gara. Enpresa bezala arazoren bat egon daitekeela uste dugu, batez ere gure kasuan, zerotik hasten ari garena. Horregatik, uste dugu oso egokia dela diru pixka bat duen funts bat izatea, **edozein arazo konpondu ahal izateko**. Ez da kopuru handia, baina nahikoa dela uste dugu. Hau aldakorra izango da ditugun sarrera kopuruaren arabera izango delako, diru-sarreraren ehuneko zehatz bat bideratuko diogu hileror.
- Azkenik, gure **hitzaldiak eta orientazio-tailerrak emateko espazioak** alokatu behar ditugu. Lokal bat badugu ere, batzuetan beste leku handiago batzuk alokatu beharko ditugu, **parte-hartzaile kopuruaren edo ekitaldien kokapenaren arabera**. Horrek bermatzen du erabiltzaile guztiak eroso joan ahal izatea. Hauek, ikertu ondoren, tamainaren arabera **orduko 100-800€** izan ohi direla ikusi dugu, baina hori dugun parte hartzaile kopuruaren arabera erabakiko dugu momentuan.

Azter ditzagun orain **gizarte-kostuak**. Enpresa baten kostu sozialak enpresa batek gizartean edo ingurunean sortzen dituen zeharkako edo kanpoko kostuei dagozkien, enpresak zuzenean bere gain hartzen dituen kostu pribatuetatik haratago (soldatak, lehengaiak edo alokairuak, esaterako). Beste era batera esanda, zure jarduera ekonomikoak **komunitatean eragin ditzakeen ondorio negatiboak** dira. ELKARTUZen, gizarte-arazo handi bati **erantzuten** diogu, eta horren **ebidentziak** jarraian erantsiko ditugu: [egizu klik hemen](#) (balio-proposamenean azalduta daude).

Honek, ikasleengan eragin negatiboa izateaz gain (antsietatea, estresa, motibazio eza...), **kostu handi bat** ere suposatzen du. Izan ere, estatistikek orientazio profesionaleko gastua zehazten ez badute ere, familiek urtean **2.000 € baino gehiago** inbertitzen dituzte

batezbestez hezkuntza-zerbitzuetan, eta tutoretzak edo coachingak hamarnaka euro balio dezakete saio bakoitzeko. Hau, zentzu batean guretzat onuragarria da, izan ere familiak kalitateko orientazioagatik ordaintzeko prest daudela ageri da. Horrez gain, Espainiako unibertsitateko ikasleen % **33 inguruk karreraz aldatzen** du edo utzi egiten du, eta urtean **974 milioi euro** inguruko galera ekonomikoa eragiten du Estatuaren eta familien artean, ikasleko batez besteko kostua **5.100 €** ingurukoa izanik ikasturte bakoitzeko. Finantza-galera horrek, emozio- eta denbora-inpaktuarekin batera, argi uzten du ELKARTUZ bezalako zerbitzuen beharra, hasierako etapetatik erabaki akademiko egokiak hartzen lagunduko dutenak. Beste era batean esanda, **orientazio eraginkor batek familia bakoitzeko milaka euroko gastua murriztu dezake, eta ehunka milioikoa gizartearentzat.**



Hortaz, uste dugu gure inpaktu positiboa eta leundu dezakegun arazoa izan ditzakegun kostu sozialak baino askoz handiagoak direla. Egia esan, ez dugu gizarte-kostu handirik: agian gure zerbitzua batez ere teknologia bidezkoa izateak nolabaiteko diskriminazioa eragin zezakeen, baina ez dugu uste hori gaur egun arazo bat denik, gure **merkatu-nitxoa batez ere gazteak** direlako eta gaur egun guztiok daukagulako interneta eskura, are gehiago, egunero erabiltzen dugu.

Azkenik, **ingurumen kostuei** dagokienez, ez dugu uste gure enpresak kalte handia eragiten duenik. Ingurumen-kostuak ingurumenari zuzenean edo zeharka eragiten dioten enpresa baten jarduerekin lotutako gastu edo inpaktu ekonomiko guztiak dira ingurumen-kostuak. Gure banaketa-kanal nagusia **plataforma digitala** denez, ELKARTUZen **ingurumen-inpaktua txikiagoa** da beste negozio-eredu tradizional batzuekin alderatuta, berez gure produktua **zerbitzua** baita eta ez dugulako fisikoa den ia ezer ekoizten. Hala ere, enpresan **baliabide digitalen erabilera arduratsuaren aldeko apustua** egiten dugu, alferrikako kontsumoak saihestuz. Gainera, ELKARTUZen ahal den neurrian paperaren erabilera murriztea sustatzen dugu, eta lehentasuna ematen diogu online lanari eta **prozesuen digitalizazioari**.